

Mahai Negoziatzailean Enpresaren azken erabakien zain.

steilas sindikatuak steilasberri 7n azaldu genuen bezala, mahai negoziatzailean, lekualdatze lehiaketaren araudiari buruzko eskaera zehatz batzuk egin zituen:

- Bi urtetan behin LAL egitea.
- Lanpostu Zerrendarako irizpideak.
- Merituen zehaztapenak.
- Finkoentzat lanpostu guztiak ateratzea.
- LEP-artekoen kontratuak ez iraungitzea.

Zehaztapenak beti araudiari egiten dizkiogu, behin betiko adostasunak garatu nahi ditugulako. Edozein egoeraren aurrean, denok jakin behar dugulako zeintzuk dira kontuan hartu behar ditugun aldagaiak. Momentuko egoerek eta salbuespenek ezin gaituzte baldintzatu.

Enpresak argi esan du akordioak une puntualetan adosten direla eta momentu horretarako direla bakarrik baliagarri. Ezin du epe luzerako hitzik eman.

Horregatik, **steilas** sindikatuak ez ditu inolako ekarpenik egin Enpresak sinatu nahi duen akordioan. Azken honek argi utzi du, bakarrik aurtengo deialdirako, matrikulazioan %5a baino gutxiagoko jaitsiera baldin badago, lekualdatze prosezua egin ondoren, lanpostu kopuru berdina mantentzera konprometitzen dela.

Eta gero?...Gero gerokoak! Araudia sinatu ondoren, lep-arteko kontratuak suntsitzeko, Enpresak nahi dituen plazak eskaintzeko eta suprimitzeko...atea zabalik geratuko da betiko.

Urtarrilaren 12an, Enpresak bidaliko digu indarrean jarri nahi dituen araudia eta akordioa, sindikatuen azken eskaerak entzun ondoren. Sindikatuok, urtarrilaren 18rako, merituen balorazioari buruzko hausnarketa bat egiteko hitza eman dugu.

Argi dago **steilas**ek lekualdatze lehiaketarako araudi bat nahi duela. Baina ez edozein, izan ere, gure babesa izateko, egonkorra eta guztion eskubideak errespetatzen duena izan behar du.

